

Jakes Bortairu

EUSKAL KONFEDERAZIOKO KIDEA

## Frantses tokiko instituzioen erreforma

**F**rantziako Estatuko lurralde elkargoen erreforma gogoetatzeko sortu zen Balladur izeneko batzordeak bere lana argitaratu du. Proposatzen dituen 20 neurriek polemika franko piztu dituzte Frantzian barna. Oraiko sistema korapilo hutsa baldin bada eta herritarren gehiengoa sinplifikazioaren alde agertzen bada, argi da urtetako botere gune eta batzuen abantailak inarrostren dituela.

Txostenak proposatzen duenaren eta udazkenean legeak xedatuko duenaren artean diferentzia handiak izaten ahal direla jakinik ere, erreforma honek aukera nahiz mehatxuz beteriko erronka berriak sortzen ditu: hauteskunde-barrutien birmoldaketa, herri ordezkariak hautatzeko moldeak, lurralde elkargoen arteko eskumenen banaketa edota horien ditu iturrien sistemak, horiek guztiek epe ertain eta luzean bizitza politikoaren ibilmodea aldatuko dute.

Baina Euskal Herriko herritarrentzat erronka nagusia epe motzean kokatzen da, hots hemendik legea bozkatu bitartean. Txosten honetan nehon ez da Euskal Herria aipatzen. Korsika, Alsazia eta itsasoz gaindiko lurraldeak aipatzen dira, Erregioen mugak aldatzeko eskaerak ere bai, Bretaniako kasuari erreferentzia inplizitua eginez. Euskal Herriaz deus



DANI BLANCO

ez. Alta non izan da 1996tik hona hemen baino, instituzio baten aldeko mobilizazio iraunkor eta zabalagorik?

Are gehiago, Hautetsien eta Garapen kontseiluetako delegazioak Balladurren esku utzi zuen txostenean aipaturiko arriskuak konfirmatzen dira. Laburbiltzeko, ez da inongo proposamen edo prozedurarik Euskal Herriari ezagupen instituzionala aitortzeko. Probabilitate handia bada instituzioen erreforma honek Euskal Herriari

deus berezirik ez ekartzeko, 2002an deserdiratze legearekin gertatu bezala. Aldiz erreformak zaildu edo oinarririk gabe utziko ditu azken urteetan sortu prozedurak eta sasi-erakundeak, hain zuzen askotan instituzio baten premia ukatzeko erabiliak izan direnak.

Ondoko hilabeteetan erreforma horri buruzko eztabaida Euskal Herrian, Iparraldeko ezagupen instituzionalaren inguruan kokatu beharko da. Azken urteetan mobilitatu ziren sektoreez gain, orain arte sasi-erakunde, Antolaketa Eskema eta Lurralde kontratuekin asetu

zirenek ere badute zer erran eta zer egin. Hautetsien nahiz herritarren aldetik, karrikan nahiz erakundeetan ahots ozen eta bakarra entzunarazi behar da: Ipar Euskal Herriak berezko instituzioa behar du orain! ■

« Probabilitate handia bada

instituzioen erreforma honek

Euskal Herriari deus berezirik ez

ekartzeko, 2002an deserdiratze

legearekin gertatu bezala

»

TXANDAN

Andoni Mujika

## Heteronomiatik...



Heteronomiatik autonomiara, alegia. Esango nuke,

besterik lortu ezean ere, heteronomiatik autonomiarako ideia bizitzarako orientabide ona dela. Bizitzarako ez-ezik bizitzetarako ere hala dela uste dut; pertsonen, erakundeen eta herrien bizitzetarako hain zuzen. Hiru plano bereizi ditut hor, hala ere, hiruretan elementu bat errepikatu egiten da: prozesua. Eboluzioa behar izaten da heteronomiatik —kanpo eragileen menpekotasunetik— autonomiara igarotzeko. Entrenamendua behar da. Lotura estua du guzti honek heldutasunarekin, bai pertsonaren planoan eta baita erakunde

zein herri eskaletan ere. Heldutasunak nortasuna dakar eta nortasun sendoko, ez

dut zurruneke esan nahi, humusean bidelagunak askoz ere interesgarriagoak dira. Panorama hobetu egiten delakoan nago. Eta askatu egiten gaitu, laranja erdien teoriatik laranja osoen lurralderako bidaia-txartela eskainiz. Norberaren burua gobernatzeko pentsamendutik gertu dago hau, esandako hiru plano horietan: norbera, erakunde eta herria. Soberaniaz ari naiz, jakina, honezkero ikasi behar genukeelako soberania berau praktikatzetik datorrela eta ez beste inondik; ala ezer ez al dugu ikasi laranja-erdiko urek uzten duten azal iharretatik? ■